

ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

I. GAI OROKORRAK



I.01. SARRERA

"Ekonomia eta finantza azterlana Planeko dokumenturik garrantzitsuen da agian, erasandakoen bermeen ikuspuntutik begiratuta. Herri-administrazioaren kudeatzaileen fantasia bat dela-eta, plan egingarriak soilik onar ditzaten saiatzen da legea, hainbat eta hainbat planek eragiten duten egoera penagarria saihesteko, azkenean ez baitituzte egiten, administratuen oinarrizko eskubideak mugatzen dituztelako eta jabaritasunezko ahalmenen jarduna oztopatzen dutelako" (González Pérez).

Eta ikuspegi honekin batera, Planean aurreikusitako inbertsioak gain hartzeko epeak ezartzen dituen Jarduketa Programa hartu behar da kontuan, eta bi dokumentu horietan definitzen eta ebaluatzen da herriaren burutzapeneko erantzukizun publiko zuzenena, inbertsioaren bidez, hau ere publikoa.

Hortaz, bi dokumentuen helburua Planean egiten diren proposamenak lortzeko epeak aztertu, baloratu eta adieraztea da, proposamen horiek Memorian deskribatu eta justifikatu direla, eta Antolamendu Planetan eta Hirigintza Arauetan ezarri direla izaera arau-emallearekin.

Bi dokumentuen lantzea LLTB-76ko 12.3 artikuluan ezartzen den legezko aginduari dagokio, ondokoa azaltzen baitu: "artikulu honetan aipatzen diren zehaztapenak ondoko dokumentuetan garatuko dira:

-
- d) Jarduketa Programa
- e) Ekonomia eta finantza azterlana"

Azken batean, kontua Planean aurreikusitako garapen-proposamenen programazioa egitea da, lau urteko bi etapatan, jarduketa eta inbertsio publiko eta pribatuak koordinatzeko, Administrazioen plan eta programekin bat etorritik.



I.02. JARDUKETA-PROGRAMA

Errenterian planteatzen diren premiei konponbidea emateko, Plan Orokor honetan hirigintza-antolamendu bat formulatzen da, eta haren burutzapenak garrantzi handiagoa edo txikiagoa duten hainbat jarduketaren garapena dakar, baina, edozein kasutan ere, koordinazioa eskatzen du haiek burutzeko. Jarduketa eta inbertsio publikoen arteko koordinazio hori lortzeko, eta LLTB-76ko 12.1 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, Plan Orokorrak lau urteko bi etapatako programazioa biltzen du bere edukia garatzeko, beste zenbait zehaztapenen artean eta oro har.

Alderdi hauek biltzen dituen dokumentua Jarduketa Programa da, eta bertan ondoko gaiak biltzen dira, PEko 41. artikuluan bilduriko aurreikuspenekin bat etorrira:

1. Epe luzerako dagokion garapenaren helburuak, norabideak eta estrategia bere esparruan barne harturiko lurralde guztian.
2. Sistemen burutzapenari dagozkion berariazko aurreikuspenak.
3. Lau urteko bi etapak, horietan garatuko direla Lurzoru Urbanizagarriko zehaztapenak.
4. Aurreikusitako jarduketak haietara egokitu beharreko epeak, hala badagokio, Hiri Lurzoruko urbanizazioa osatzeko edo barne-erreformako operazioak egiteko lurzoru-mota horretan.



I.03. EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERLANA

Antolamenduari buruzko Memoriaren II. Tomoan planteatzen diren soluzio orokorrek ekonomia eta finantza azterlan baten garapena eskatzen dute, bertan udalerriko lurralderako Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketaren finantzaketaren ildo nagusiak aurreikusita daudela. Ekonomia eta finantza azterlan horrek baliabide ekonomikoak, kostuen eta finantzaketaren kalkuluak egiten ditu, Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketa guztiak aurrera eramateko oinarria direnak alegia. Ekonomia eta finantza azterlanaren edukia PEko 42. artikuluan bilduta dago, dokumentu honek ondoko gaiak bilduko dituela zehazten duena:

1. PEko 19.1.b artikuluan definituriko lurraldearen egitura orokor eta organikoari eta zerbitzuen ezarpenari dagozkion urbanizazio-obren burutzapenaren ebaluazio ekonomikoa, biek ere Lurzoru Urbanizagarriari dagozkion lau urteko programetan barne hartuta.
2. Hala egokituz gero, Hiri Lurzorurako programatu diren jarduketei buruzko ebaluazio bera.
3. Plan Orokorraren aurreikuspenak burutzeko egin beharreko inbertsioen izaera publiko edo pribatuaren zehaztapena, sektore publiko eta pribatuari esleitzen zaizkion obrak eta zerbitzuak nahikoa zehaztuz, lehenengo kasuan inbertsioaren zenbatekoa gain hartzen duten Erakunde edo Entitate publikoen eskutik.

Ondorio horietarako, PEko 19. artikulua Antolamenduko Udaleko Plan Orokorrek bildu beharreko izaera orokorreko zehaztapenak ezartzen ditu. Zehatz esanda, haren 1 b) idatz-zatian lurraldearen egitura orokor eta organikoa osatzen duten elementuen multzoa zerrendatzen da, hiri-garapenaren elementu erabakigarriak osatzen dutela, eta, zehazki, ondoko elementuek:

- Komunikazio Sistema Orokorra eta haren babes-zonak.
- Parke publiko eta berdeguneetarako Espazio Libreen Sistema Orokorra, 5 (bost) m² biztanleko gutxieneko proportzioan.
- Ekipamendu Komunitarioko eta Ikastetxe Publikoetarako Sistema Orokorra.

Herritarrei, parke eta lorategiak direla-eta, biztanleko bost metro koadroko estandarra emateko legezko betetzeari dagokionez, kontuan hartu behar da ondorio horietarako Foru Aldundiaren irizpidearen arabera parametro hori etxebizitza bakoitzeko hemezortzi (18) m² dela.



I.04. ADMINISTRAZIO ZENTRALAREN, AUTOMATIKOAREN ETA FORALAREN INBERTSIO PUBLIKOA

Zalantzarik gabe beharrezkoa da Planean egiten den proposamen bakoitzak dakarren inbertsio-kostua ebaluatzea, haren bideragarritasuna argi eta garbi justifikatuta geratzeko moduan.

Herriaren antolamenduaz arduratzea lehenik Udalari badagokio ere, egia da haren lurraldea ez dagoela espazioari dagokionez isolatuta antolatuta, eta lurraldeak, eta hortaz bertako biztanleek, zerbitzuak eta bestelako esparruetan bizi diren herritarrekin topatzea behar dute beste udalerrri eta lurraldeekin harremanak dituztenean, mugakideak direla edo ez direla.

Illo horretan, kontuan hartu behar da Errenteriako Plan Orokorrean ezartzen diren proposamenak erabat burutzeko beharrezko inbertsioek, zortzi urteko denboraldirako indarrean sartzen denetik kontaktzen hasita, nabarmen gaintitzen dute Udalaren aurrekontu-ahalmena; haietako asko, normalean azpiegitura handiak, formulatzeko dagokion eskumena ez izatea alde batera utzita.

Hortaz, beste Administrazioen ahalmena eta inbertsio publikoko baliabideak izatea beharrezkoa denez, nolabaiteko "errealismo zuhurrez" planifikatu behar da. Eta espiritu horrekin oinarritu dira Plan Orokor honetan ezartzen diren hiri-antolamendurako proposamenak.

Bestalde, zenbait Administrazioi (Estatukoa, Autonomikoa eta Forala) burutzea dagozkion jarduketak egiazko zuhurtasunez proposatzeak abiapuntutzat geroko inbertsio-ahalmenari buruzko suposizioa hartzea eskatzen du, ez iraunkorra ezta finkoa ere, eta administrazio-inertzien arabera soilik justifikaturikoa.

Jakina denez, aurrekontu-ahalmenak dagozkion aurrekontuko lege edo araudiek arestian adierazitako hiri-administrazioetako bakoitzari urtero esleitzen dizkioten baliabideen mende daude, eta horietako bakoitzak, aldi berean, inbertsio horietarako esparru gutxi-asko zabalak ditu. Horretaz gain, kontuan hartu behar da, esperientziaren arabera, aukerako, ahalmeneko, hainbat faktore, eta baita kidetasuneko faktore ere, daudela, eta horien arabera inbertsioek nahiago dituzte destino batzuek besteak baino.

Bestalde, oso ezaguna da ziklo ekonomikoen txandakatzea, eta horren ondorioz inbertsio-ahalmen handiagoko garaiak izaten dira beste zenbaitekin alderatuta, ahalmen estuko garaiak alegia. Hori dela-eta, ezein erakundek ezin du alde zuzenetik ezagutu udalerrri horretarako datozen urteetan izango den aurrekontu-esleipena, zenbaitetan ustel gertatzen diren aurreikuspenak izan ezik; eta horren ondorioz paradoxa izaten da, izan ere Administrazio guztietara jo behar baita Planean proposamenen burutzapena ziurtatzeko eta horietako ezein erakundek ezin ditu geroko inbertsioak ziurtatu, eta are gehiago bi laurtekoen eszenatokiarekin, lege-aginduz beharrezkoa baita Plan Orokorraren programazio-xede gisa planifikatzea.



Dena den, aurreko Planeamenduko Arau Subsidiarioak indarrean sartu zirenetik, orain dela hamar urte, igaro den denborak ematen duen ikuspegiarekin eta izandako esperientziarekin, eta hainbat programaren bidez (URBAN, PERCO, IZARTU, KOSTAK, AREA DEGRADATUAK, eta abar) zenbait Administrazioarekin izandako hainbat lankidetzaprograma ikusita), horietako zenbait gaur egun iraunaldi betean daudela, zuhurra dirudi amaitzeko adieraztea lankidetzaprograma eta hitzarmeneko euskarri bat izango dela, eta Planaren garapenari esleituriko denboraldian nahikoa ahalmen izatea ahalbidetuko du haren zehaztapenen erabateko burutzapena lortzeko.

Hortaz, zuhurra litzateke Plan Orokorra onesten denetik jarrera ireki eta malgua izatea haren edukiei buruz, aurreikusitako helburuen eguneratzearen mantentze jarraiki eta iraunkorra era berezko eta ez-traumatikoan ziurtatuta geratzeko moduan, Errenteriaren arian ariko bilakaera-prozesuaren arabera, bere hiri-eraikuntzari dagokionez zein egoera ekonomiko orokorrari dagokionez.



I.05. OINARRI JURIDIKOAK

- 39/1988 Legea, abenduaren 28koa, Tokiko Ogasunak erregulatzen dituen.
- 500/1990 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, aurrekoa garatzen duena.
- 15/1994 Foru Araua, Udal Finantzaketako Foru Fondoa erregulatzen duena.



I.06. ERRENTERIAKO UDALAREN AURREKONTU OROKORRAREN BURUTZAPEN-OINARRIAK

Ondoren aurkezten diren datuak Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkuraren Akordiotik bildu dira, 2000ko ekitaldiko Errenteriako Udaleko kontuak fiskalizatzeko txostena behin betiko onesten duena, 2002ko martxoaren 21eko bilkuran harturikoa.

A. FINANTZA-AZTERKETA

	Milioika pta.-tan.			Milaka pta./biztanleko				
	Urtea			Urtea			Erref. 99	
	98	99	00	98	99	00	Gip.	Eusk.
Zergak (1 eta 2. kap.)	957	1.016	1.073	25	26	27	31	32
Tasak, prezioak eta bestelakoak (3 eta 5. kap.)	636	875	749	16	22	19	23	19
Transf. eta dirula. ohikoak. (4. kap)	2.540	2.633	2.764	65	67	71	68	57
A. Diru-sarrera Ohikoak	4.133	4.524	4.586	106	115	117	122	108
Pertsonalaren gastuak (1. kap)	1.639	1.635	1.832	42	42	47	36	33
Erosketak, zerbitzuak eta dirula. (2 eta 4. kap)	1.690	1.770	1.845	43	45	47	48	42
B. Funtzionamendu Gastuak	3.329	3.405	3.677	85	87	94	84	75
Aurrezte Gordina (A-B)	804	1.119	909	21	28	23	38	33
Finantza Gastuak (3. kap)	184	134	148	5	3	4	3	2
Emaizta Ohikoa	620	985	761	16	25	19	35	31
Jasotako kapitalaren diru-laguntzak	159	110	183	4	3	5	6	3
Inbertsio errealak (6. kap. eta gastu o. 7)	956	929	762	24	24	19	26	18
Diruzaintzako Soberakina	726	810	527	19	21	13	34	32
Zorpetzea	3.188	3.695	3.421	81	94	87	63	40
							Biztanleak:	39.200

OHARRA: Taulako erreferentziak 1999ko ekitaldiko 20.000 eta 50.000 arteko biztanle dituzten udalen datuei dagozkie (azken datu eskuragarriak).



B. DIRU-SARRERA OHIKOAK

Zergatiko diru-sarrerak nabarmentzen dira, 27.000 pezeta/biztanleko zenbatekoarekin, erreferentzia gisa harturiko udalek bildurikoak baino pixka bat txikiagoak (31.000 eta 32.000 pezeta/biztanleko Gipuzkoarako eta Euskadirako 1999an, hurrenez hurren). Horri dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaraturiko GIDA argitalpenak interesgarriak diren zenbait adierazle biltzen ditu 2000ko abenduko ale berezian:


"Zerga-ordenantzak" izeneko neurriak araudiak baimenduriko gehieneko tasa eta tarifen udalaren erabilera-maila neurtzen du, eta Erreterian %66ko balioa du; Arrasaten, berriz, %54, Eibarren %62 edo Irunen %55. Horrenbestez, Erreteriarako Udalak zerga-oinarriei aplikaturiko tasak erreferentziatzko udalenak baino handiagoak dira.

"Zerga-ahalmenaren" helburua kargapeko udal aberastasuna baloratzea da (higiezinen errodaren araberako balioa, jarduera ekonomikoak eta ibilgailuak), eta Erreterian duen balioa 11.896 da biztanle bakoitzeko, eta Arrasaten, berriz, 17.490, Eibarren 14.573 edo Irunen 18.292.

Datu hauen arabera, Erreteriarako zergatiko diru-bilketa txikiagoa zerga-oinarri txikiagoei zor zaie (dagoen ondasunaren balorazio txikiagoak direla-eta), eta horri zerga nagusietan (OHZ, JEZ, EIOZ) hainbat salbuespen eta hobari aplikatzearen ondorioa gehitu behar zaio.

Udalari berriazko azterlan bat egitea gomendatzen diogu, antzeko udalekin alderatuta zergatiko bilketa txikiagoa aztertzeko.

Milaka pezeta biztanle bakoitzeko





C. FUNTZIONAMENDU ETA FINANTZA GASTUAK

Udalaren gastu ohikoak oso handiak dira antzeko tamainako udalekin alderatuta, eta pertsonal-gastuen zifra handia nabarmentzen da, 47.000 pezeta/biztanleko; 36.000 eta 33.000 pezeta/biztanleko erreferentziak ditugu, hurrenez hurren, Gipuzkoan eta Euskadi 1999an.

Illo honetan, konparazio bat egin dugu Eibarko Udalaren egitura organikoarekin, eta Erreterian hiri-mantentzean (kaleen eta obra txikien mantentzea), gizarte-zerbitzuetan (udal-hautzaindegia eta etxez etxeko laguntzaileak) kultura eta euskaran (14 administrari eta laguntzaile Erreterian eta 8 Eibarren) pertsonal gehiago dagoela ikusi dugu. Bestalde, Erreteriarako ordainsari-mailak Eibarkoak baino zertxobait handiagoak dira ezaugarri bertsuko lanpostuetarako (zenbait kasutan lanpostuei esleituriko maila Eufaleba-k aurreikusitako gehieneko ere gainditzen du).


Alde garrantzitsu hau zehatz-mehatz aztertu beharko luke udalak, zerbitzuak emateko udal-egitura egokiena ote den egiaztatuz.



D. AURREZTE GORDINA ETA EMAITZA OHIKOA

Aurrekoaren ondorioz, aurrezte gordina eta emaitza ohikoa erreferentziatzen harturiko udalek erregistraturikoak baino askoz ere txikiagoak dira. Emaitza ohikoa 19.000 pezeta/biztanleko da Errenterian eta 35.000 eta 31.000, berriz, 1999ko Gipuzkoako eta Euskadiko erreferentzietan, hurrenez hurren.

Milaka pezeta biztanle bakoitzeko






E. INBERTSIOAK

Errenteriako Udaleko inbertsioak 19.000 pezeta/biztanleko ziren 2000an, erreferentziazat harturiko udalen batez bestekoaren oso antzeko ildoan.

Milaka pezeta biztanle bakoitzeko






F. ZORPETZEA

Zorpetzea 87.000 pezeta/biztanleko da, eta urteko emaitza ohikoa 4,6 bider da. Gipuzkoako antzeko udalerriena baino karga handiagoa da hori (63.000 pezeta/biztanleko), eta Euskadi osoarena baino handiagoa ere bai (40.000 pezeta/biztanleko).

Milaka pezeta biztanle bakoitzeko





II. EGITURA OROKOR ETA ORGANIKOA



II.1 EGITURA OROKOR ETA ORGANIKOA

Hiri Antolamendurako Plan Orokor honek udalerrriaren Egitura Orokor eta Organikoa definitzen du PEko 19. artikuluan erregulaturikoari dagokionez, bertan ezartzen direla Antolamenduko Udaleko Plan Orokorek bildu beharreko izaera orokorreko zehaztapenak, eta zehatzago, haren 1 b) idatz-zatian, eta horrenbestez, hiri-garapenaren elementu erabakigarriak ondoko eskemaren arabera:

KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA	(KSO)
Trenbidea	KSO/1
Errepide-sarea	
- Hiriarteko errepidea	KSO/2.1
- Errepide-banatzailea	KSO/2.2
- Oinezkoena.....	KSO/2.3
- Espazio libre azpiko garajea	KSO/2.4
- Bizikletentzako sarea	KSO/2.5
Portua	KSO/3
ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA	(ELSO)
Parke eta lorategiak.....	ELSO/1
Oinezkoen guneak	ELSO/2
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO SISTEMA OROKORRA	(EKSO)
Administratibo Publikoa	EKSO/1
Azoka	EKSO/2
Irakaskuntza	EKSO/3
Kultura.....	EKSO/4
Sanitarioa.....	EKSO/5
Asistenziala eta bestelako zerbitzuak	EKSO/6
Hilerria	EKSO/7
INSTALAZIO ETA AZPIEGITUREN SISTEMA OROKORRA	(IASO)
Zabortegia	IASO/1
Ur-hornidura	IASO/2
Saneamendu-sarea	IASO/3
Energia elektrikoaren hornidura.....	IASO/4
Telekomunikazioak.....	IASO/5
Gas naturalaren hornidura	IASO/6
IBAI-UBIDEEN SISTEMA OROKORRA	(IUSO)
Ibai Ubideak	IUSO/1
ITSAS/LEHORREKO HERRI-JABARIAREN SISTEMA OROKORRA	(ILSO)
Itsas/Lehorreko Herri Jabaria	ILSO/1



III. JARDUKETA-PROGRAMA



III.01. SISTEMA OROKORREN BURUTZAPENARI DAGOKION BERARIAZKO AURREIKUSPENA

Plan Orokor honek lehenengo eta bigarren laurtekoari dagokion programazioa gauzatzen du, Komunikazioen Sistema Orokorrarekin loturiko aurreikusitako jarduketan burutzapenari dagokionez¹. Ondoko taulan zehazten da jarduketa bakoitzari dagokion adskripzioa **X** sinboloaren bidez, lehenengo edo bigarren laurtekoan dela.

KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA	LEHENENGO LAURTEKOA	BIGARREN LAURTEKOA
KSO/1: PORTUA	X	X
KSO/2.1: HIRIARTEKO ERREPIDEA: DONOSTIAKO 2. GERRIKOA	X	-
KSO/2.1: HIRIARTEKO ERREPIDEA PASAIAKO SAIHESBIDEA	X	-
KSO/2.1: HIRIARTEKO ERREPIDEA SAN MARKOS ZUBIA HANDITzea	X	-
KSO/2.1: HIRIARTEKO ERREPIDEA BIDEAK BERRITzea (2. GERRIKOA)	X	-
KSO/3: TREN BIDEA ET/FV: bideak zabaltzea	-	X
KSO/3: TREN BIDEA ET/FV: Bideak estaltzea	-	X
KSO/3: TREN BIDEA ET/FV: Lantegiak lekualdatzea	X	-
KSO/3: TREN BIDEA ET/FV: Errenteriako geltoki berria	-	X
KSO/3: TREN BIDEA ET/FV: Fanderiako geltokia	X	-
KSO/3: TREN BIDEA RENFE: Gabierrotako geltokia	-	X
KSO/3: TREN BIDEA GIF: Trenbide-sare berria	X	-

¹ HAPO indarrean sartzan denetik aurrera, behin betiko onartu ondoren.



III.02. LURZORU URBANIZAGARRIAREN ZEHAZTAPENEN GARAPENERAKO LAU URTEKO ETAPAK

Plan Orokor honek lehenengo eta bigarren laurtekoari dagokion programazioa gauzatzen du, lurzoru urbanizagarrian aurreikusitako jarduketei dagokienez². Ondoko taulan zehazten da jarduketa bakoitzari dagokion adskripzioa **X** sinboloaren bidez, lehenengo edo bigarren laurtekoan dela.

SEKTOREA	LEHENENGO LAURTEKOA	BIGARREN LAURTEKOA
32: ESNABIDE	X	-
35: AGUSTINETAKO DEPOSITUA	X	-
36: ARRAMENDI	X	-
38: MARKOLA	X	-
39: LARTZABAL/ARRAGUA	X	-
44: ZAMALBIDE BERRI	-	X
48: TOLAREBERRI	-	X
56: GAMONGOIA	X	-
57: PERUTXENE/SAGASTI	X	-
58: PALAZIO ZARRA/LARRETXIPI	-	X
59: URKIOLA	-	X
60: EGIBURUBERRI	X	-
61: SAGARDIBURU	X	-
63: AZAÑETA	X	-

² HAPO indarrean sartzten denetik aurrera, behin betiko onartu ondoren.



III.03. AURREIKUSITAKO JARDUKETAK HAIETARA EGOKITU BEHARREKO EPEAK HIRI-LURZORUKO URBANIZAZIOA OSATU ETA BARNE-ERREFORMAKO OPERAZIOAK EGITEKO.

Plan Orokor honek lehenengo eta bigarren laurtekoari dagokion programazioa gauzatu du, hiri-lurzoruan aurreikusitako jarduketei dagokienez³. Ondoko taulan zehazten da jarduketa bakoitzari dagokion adskripzioa **X** sinboloaren bidez, lehenengo edo bigarren laurtekoan dela.

AREA	LEHENENGO LAURTEKOA	BIGARREN LAURTEKOA
01: PORTUA	X	-
04: KAPUTXINOAK 04/03 EU: Garajea Sorgintxulo kalea, 31	-	X
07:ALABERGA 07/02 EU: Alabergako ibarra	X	-
08: MORRONGILLETA 08/03 EU: Xenpelar kalea, 4 zk. 08/04 EU: Xenpelar kalea, 3 zk. 08/05 EU: Xenpelar kalea, 2 zk. 08/06 EU: Xenpelar kalea, 1 zk. 08/07 EU: Kale Txiki 08/10 EU: Viteri kalea, 31-37 zk. 08/13.2 EU: Bisseuil y Huet 08/16 EU: Martín Etxeberria kalea, 2 zk.	X X X - - X X X X	- - - X X - - -
09: GALTZARABORDA EKIALDEA 09/04 EU: Insausti Enea 09/07 EU: Gure Kabiya	X X	- -
10: GALTZARABORDA MENDEBALDEA 10/01 EU: Frontoia	X	-
11: BERAUN 11/01 EU: Julián Lavilla kalea	-	X
12: PONTIKAKO IBARRA 12/02 EU: M ^a de Lezo kalea, 41 zk. 12/03 EU: Gecotor/Sabatenea 12/05 EU: Aitzondo Berri	X X X	- - -
13: GAZTAÑO 13/01 EU: Gaztaño Zaharra 13/02 EU: Gaztaño Berri 13/03 EU: ET/FV Geltokia eta Lantegiak	X X X	- - -

³ HAPO indarrean sartzen denetik aurrera, behin betiko onartu ondoren.



AREA	LEHENENGO LAURTEKOA	BIGARREN LAURTEKOA
14: ERDIGUNEA		
14/01 EU: Hirigune Historikoa	X	-
14/02 EU: Santa Klara kalea, 17, 19, 21 zk.	-	X
14/03 EU: Santa Klara kalea, 25, 27 zk.	X	-
14/04 EU: Lehendakari Agirre plaza	X	-
14/05 EU: Santa Klara kalea, 20, 22 zk.	X	-
14/06 EU: Santa Klara kalea, 24 zk.	-	X
14/07 EU: Santa Klara kalea, 12, 14 zk.	-	X
14/08 EU: Tomás López kalea, 11 zk. (atzealdea)	X	-
14/09 EU: Gaztelutxo	X	-
14/10 EU: Miguel Alduntzin kalea, 7 zk. garajea	X	-
14/11 EU: Aparkalekua, T. López kalea	X	-
14/12 EU: Miguel Alduntzin kalea, 1-6 zk.	X	-
14/13 EU: Azoka zaharra-P.Iglesias, 11 zk.	X	-
14/14 EU: On Bide - R. M ^a de Azkue, 13-17	X	-
14/15 EU: Pablo Iglesias 13-R.M ^a Azkue, 14	X	-
14/16 EU: Pablo Iglesias15-R.M ^a Azkue, 16	X	-
14/17 EU: Viteri kalea, 12, 14, 16 zk.	-	X
14/18 EU: Viteri eskolak	-	X
14/19 EU: Nafarroa Etorbidea, 65 zk.	X	-
14/21 EU: Niessen Fabrika zaharra	X	-
14/22 EU: M. Alduncin kalea 13 zk.	X	-
14/23 EU: T. López-R.M ^a Azkue kaleak	X	-
15: IZTIETA		
15/01 EU: Iztietza pasealekua	X	-
15/02 EU: Ondartxo	X	-
15/03 EU: Iztietako lotunea	X	-
16: ALTZATE	X	-
18: OLIBET -ETXE BERRIAK		
18/03 EU: Lekuona	X	-
19: PAPRESA, S.A.		
19/01 EU: Papresa, S.A.	X	-
19/02 EU: Askatasunaren martiriak kalea	-	X
22: AGUSTINAK		
22/01 EU: Iztietza Ikastetxe zaharra	X	-
22/02 EU: Pasabidea	X	-
22/03 EU: Hombrados Oñativia, 2 zk.	X	-
22/04 EU: Etxeberri	X	-
22/05 EU: 3/2 EKS Ekipamenduko Lur-zatia	X	-
23: BIDEZUBI ETXEAK	X	-
28: EGIBURU	X	-
29: EGILUZE		
29/01 EU: Granja Egiluze	X	-
29/02 EU: Orbegozo	X	-



AREA	LEHENENGO LAURTEKOA	BIGARREN LAURTEKOA
37: FANDERIA		
37/01 EU: Hegoalde bideko biribilgunea	X	-
37/02 EU: Gabierrotako biribilgunea	X	-
37/03 EU: Fanderiako geltokia	X	-
41: MASTI/LOIDI		
41/01 EU: Salbatore	X	-
41/02 EU: Arramendi baserria	X	-
45: AÑABITARTE		
45/01 EU: Añabitarre	X	-
45/02 EU: Belabaratz	X	-
55: VILLA MARÍA LUISA	-	X
62: ERRETERIA/LEZO POLIGONOA	X	X



IV. EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERLANA



**IV.01. HIRI-LURZORUARI DAGOKION AZPIEGITURA OROKOR ORGANIKOAREN OBREN EBALUAZIO
EKONOMIKOA**

TAULA



**IV.02. LURZORU URBANIZAGARRIARI DAGOKION AZPIEGITURA OROKOR ORGANIKOAREN
OBREN EBALUAZIO EKONOMIKOA**

TAULA



**IV.03. HIRI-LURZORUKO PLAN OROKORRAREN AURREIKUSPENEN BURUTZAPENERAKO EGIN
BEHARREKO INBERTSIOEN IZAERA PUBLIKO EDO PRIBATUAREN ZEHAZTAPENA**

TAULA



IV.04 LURZORU URBANIZAGARRIKO PLAN OROKORRAREN AURREIKUSPENEN
BURUTZAPENERAKO EGIN BEHARREKO INBERTSIOEN IZAERA PUBLIKO EDO PRIBATUAREN
ZEHAZTAPENA.

TAULA



V. ONDORIOA



Ekonomia-azterlanak laguntza eskaini du Plan Orokorraren edukian honen dimentsionatuan irizpide ekonomikoak gaineratuz, baita Udalaren, beste Herri Administrazioen eta sektore pribatuaren arteko finantzaketa-sistema gaineratuz ere, haren garapena arrazoizko epeetan ahalbidetuko duena eta partikularren eskutiko urbanizazio berriko operazioen errentagarritasun ekonomikoa bermatzen duena.

Eraitza hauek bi laurtekoetan Jarduketa Programa dimentsionatzeko baliagarri izan dira, Sistema Orokorren inbertsio lehentasunezkoak eta estrategikoak zehatzuz, eta sektore berrietan, bizileku-garapenekoei zein jarduera ekonomikoei eta hirugarren sektorekoei dagozkienetan.

Errenteria, 2004ko apirila

Plan Orokorraren Bulegoko Zuzendaria

Stua.: Enrique Ponte Ordoqui